

ARTEA. Obra 1957an sortu zuen, Sao Pauloko biurtekorako



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Jorge Oteizaren *Eraikuntza hutsa* Donostiako Paseo Berrian.

Jorge Oteizaren 'Eraikuntza hutsa' inauguratu dute

Artistak ez zuen atzo Donostiako Paseo Berrira joaterik izan

Agentziak | **DONOSTIA**

Jorge Oteiza oriotar eskultorearen *Construcción vacía* (*Eraikuntza hutsa*) eskultura inauguratu zuten atzo Donostiako Paseo Berrian. Aurretik ermita txiki bat egon zen lekuan kokatu dute Oteizaren lanaren kopia berria, Kontxako badia eta Eduardo Txillida zenak sortutako *Haizeen orrazia* eskultura ezaguna ikusmiran dituela.

Bihar 94 urte beteko ditu Orion 1908ko urriaren 21ean jaioetako eskultore handiak, eta atzo ez zuen Donostian egindako ekitaldian parte hartzerik izan, osasun arazo batzuk medio Zarauzko etxean geratu behar izan baitzuen. Nolanahi ere, osatutakoan eskultura *in situ* ikustera joateko asmoa du; datorren astean akaso, atzo aurreratu zuten.

Haren iloba, Pilar Oteiza, Paseo Berrian izan zen hala ere, Nestor Basterretxea artistarekin, Odon Elorza Donostiako alkatearekin, Roman Sudupe Gipuzkoako ahaldu nagusarekin, Koro Garmendia Eusko Jaurilaritzako Turismo sailburordearekin, Martin Berasategi sukaldariarekin eta eskultura egun dagoen lekuan jartzeko lanetan parte hartu duten arkitecto eta teknikariek batera.

Construcción vacía obra 1957an diseinatu zuen Jorge

ARTISTAREN EGOERA

Osasun arazoez eragotzi zioten Oteizari ekitaldian izatea, baina artistak badu Paseo Berrira joateko asmoa

KOKALEKUA

Kontxako badia eta Eduardo Txillida zenaren 'Haizeen orrazia' ditu ikusmiran eskultura kokatu duten lekuak

Oteizak, Sao Pauloko biurtekorako. *Construcción vacía en cuatro unidades planas negativo-positivo* da artistak eskulturari jarritako izen osoa, orain soildu eta sinplifikatua agertzen bada ere. Artistak obra gaur egun kokatua dagoen lekuan ikusi ondoren, izenburu hori alda dezakeela adierazi zuten atzo artista ezagutzen dutenek. «Oteizak beti bilatu izan du itsasoa, itsasoaren atea», adierazi zuen atzoko ekitaldian Jesus Barreirok, Jorge Oteizaren *Construcción vacía*-ren ezarpena zuzendu duen arkitektoak.

Atzoko inaugurazio ekitaldia xumea izan zen. Johan Sebastian Bachen *Biolontxelorako 1. Suitearen Preludioa* entzuteko aukera izan zen, Donostiako Udal Txistulari Bandaren parte-hartzea izan zuen emaldian.

Kontxako badiaren bi muturren arteko «dialektika»

Kontxako badiaren bi muturren artean sortutako «dialektika» laudatu zuen Odon Elorzak atzoko inaugurazio ekitaldian egindako adierazpenetan. Oteizaren *Construcción vacía* egun dagoen lekuan kokatzeko asmoa duela lau urte sortu zela ekarri zuen gogora Elorzak, eta 4 milioi euroko aurrekontua izan duela guztira.

Artistak 1957an bere lanari emandako izena Euskal Herriak egun bizi duen egoeraren «aurrekaria» ematen duela adierazi zuen Donostiako alkateak, euskal komunitatea «ilusioz, elkarriketez eta ekarpe-ner gero eta hutsago» dagoela iruditzen zaiolako.

**Lekeitioko
Portuan**

PISUA SALGAI

95 m2

300.500 € - (50.000.000 pta)

Tel.: 630 98 87 90

LABURAEAN

MUSIKA

The Chieftains taldeko harpa jotzaile Derek Bell hil da, ustez larria ez zen ebakuntza baten ondoren



Derek Bell.

Derek Bell zendu berriaren konpainia diskografikoaren arabera, larritasunik gabeko ebakuntza baten ondorioz hil zen joan den ostegunean Phoenixen (AEB), baina ez dute berri gehiago eman heriotzaren zergatien inguruan. The Chieftains talde ezaguneko harpa jotzaileak 67 urte zituen, eta Irlandara, etxera, itzultzekotan zen AEBetatik ebakuntzaren ondoren. Ospitalean sartu baino egun gutxi batzuk lehenago jo zuen bere taldearekin, eta AEBetan *Down the old plank road: the Nashville Sessions* disko berria aurkezten ari zen. Taldearen 40. urteurrenaren harira atera zuten disko hori. Belfastarrak bizi osoa eskaini dio musikari. 11 urterekin egin zuen lehen konposizioa.

ZINEMA

Donostiako Beldurrezko Astearen sei erakusketa jarriko dituzte

Donostiako Beldurrezko eta Fantasiarazko Astearen baitan, zinemaldiarekin zerrikusia duten argazki, kartel eta irudi oso berezien erakusketak ikus ahal izango dira, azaroaren 1etik 9ra bitartean. Enrique Jimenez Corominasen marrazkiak, beldurrezko kartel hautatuak, errodiaren egindako hainbat dekoratzen erakusketa, Pedro Usabiagaren zuri-beltzean egindako argazkiak eta Christian Mauryren argazki bereziak izango dira astearen eskainitzaeren artean.

ARTEA

Guggenheim museoak gaur ere doako sarrera izango du bosgarren urteurrenaren harira

Atzo jendetza gerturatu zen Bilboko Guggenheimera, eta pentsatzekoa da gaur ere hala izango dela, bertako erakusketak bisitatzen doan sartzeko aukera baitago. Museoak bost urte bete dituela-eta, eta aurreikuspen guztiak gaititu direla kontuan hartuta—uste baino jende gehiago joan da museora bost urteotan—, jendeari esker onez atek ireki nahi izan dizkio. Bosgarren urteurrenaren ospakizun sortan azkena izango da museora doan egin daitekeen bisita.

ANDOAIN

“TXEKIAKO HAUR ABESBATZA”

(Tolosako 34. nazioarteko abesbatza lehiaketaren partaidea)



**URRIAREN 30EAN 20:00etan
SANTA KRUTZ ELIZAN**

Antolatzailea: ANDOAINGO UDALA. Urigain Kultura Etxea